

## Real Sociedad futbol taldeko beteranoek MUko langileen eta ikasleen kontra jokatuko dute Arrasaten

2008/04/17

Mondragon Unibertsitatearen **10. urteurrena** dela-eta, bertako Kirol Zerbitzuak futbol partida bat antolatu du Real Sociedad futbol taldeko beteranoen eta MUko langile eta ikasleen artean. **Apirilaren 24an** izango da, Mojatetik futbol zelaietan, Arrasaten.

Lagunarteko futbol partida izango da, hiru talderen artean jokatu, jai giroan beti ere. Horrela jokatu da:

- 18:30-19:00: Errealak – MUko ikasleak
- 19:10 – 19:40: Errealak – MUko langileak
- 19:50 – 20:20: MUko ikasleak – MUko langileak

Partidak amaitutakoan, luntx bat emango da partaide guztientzat.

